

Euskal Zuzenbide Zibileko oinordetza erakundeak gaitasun mugatua duen pertsonaren ikuspuntutik*

MIKEL ETXEBARRIA GUMUZIO

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko graduduna
Graduado en Derecho por la Universidad de Deusto

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 17/09/2018

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 18/07/2022

Laburpena: Ikerketa honen helburua pertsona fisikoaren jarduteko gaitasunaren eta Euskal Zuzenbide Zibilaren (aurrerantzean EZZ) arteko harremana ikertzea eta azaltzea da, bien arteko harremana uztartzeko asmoz. Hala ere, hautatutako bi kontzeptu edo gaiak zabalegiak direnez, lehenik eta behin lanaren edukiaren hurbileko behaketa zehaztu behar da. Alde batetik EZZ dugu, gaur egun lege berezian jasotzen dena nagusiki, eta horren barne hainbat gai aztertzen dira, hala nola, zuzenbide zibil propioaren izaera juridikoa, euskal ondarearen ulerkeria, oinordetzaren inguruko xedapenak eta berezitasunak, eta ezkontza ondasunen araubidea. Bestetik, gaitasunari dagokionez, gai guztiz zabala da, orokorrean Kode Zibilean (aurrerantzean KZ) jasotzen dena, non arlo pertsonala, jarduera eta erantzukizun legala, ondare arloa... aztertu daitekeen.

Gako-hitzak: gaitasuna; gaitasun mugatua; oinordetza; Euskal zuzenbide zibila.

*“Legelari gazteentzako Adrián Celaya saria”ren VI. Edizioan saritutako lana, Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2021ean emana.

Las instituciones sucesorias del Derecho Civil Vasco desde la perspectiva de las personas con capacidad limitada

Resumen: El objetivo de esta investigación se centra en el estudio y análisis de la relación entre el Derecho Civil Vasco y la capacidad de obrar de las personas físicas, con el ánimo de compaginar ambas regulaciones. No obstante, la materia o conceptos mencionados son excesivamente amplios por lo que nos obliga a fijar una aproximación más cercana del contenido del trabajo. Por una parte, nos encontramos el Derecho Civil Vasco recogido en la Ley 5/2015, de 25 de junio, que regula numerosas materias como la naturaleza jurídica de un derecho civil propio, la concepción del patrimonio vasco, las especialidades y disposiciones sucesorias, y el régimen económico del matrimonio. Por otro lado, respecto a la capacidad, se trata de una materia muy amplia que, con carácter general, se regula en el Código Civil, donde se abordan materias relativas a la persona, el patrimonio, la actividad y la responsabilidad legal

Palabras clave: capacidad; capacidad limitada; sucesión; Derecho civil vasco.

The inheritance institutions of Basque Civil Law from the perspective of people with limited capacity

Abstract: The objective of this research focuses on the study and analysis of the relationship between Basque Civil Law and the capacity to act of natural persons, with the aim of combining both regulations. However, the matter or concepts mentioned are excessively broad, forcing us to establish a closer approximation of the content of the work. On the one hand, we find the Basque Civil Law contained in Law 5/2015, of June 25, which regulates numerous matters such as the legal nature of its own civil law, the conception of Basque heritage, the specialties and succession provisions, and the economic system of marriage. On the other hand, regarding capacity, it is a very broad matter that, in general, is regulated in the Civil Code, where matters related to the person, assets, activity and legal responsibility are addressed.

Key words: ability; limited capacity; succession; Basque civil law.

AURKIBIDEA: I. SARRERA: 1. Helburua eta justifikazioa; 2. Oinordetza zuzenbidearen alderaketa juridikoa: Zuzenbide erkidea eta Euskal Zuzenbide Zibila; 3. Gaitasun mugatuaren bilakaera ikuspuntu juridikotik. 8/2021 legearen eragina; II. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILEKO OINORDETZA ERAKUNDEEN AZTERKETA GAITASUN MUGATUA DUEN PERTSONAREN IKUSPUNTUTIK: 1. Testamentu bidezkoak: A) Testamentu mankomunatua; B) Komisario bidezko testamentua; C) Senipartea: Jaraunle izendatzeko askatasuna: a) Onbidezko ordezpena; b) Fideikomiso bidezko ordezpena; c) Tronkalitatea Bizkaiko lur lauan, Laudion eta Aramaion; 2. Oinordetza itunak; III. FORU ZUZENBIDE DESBERDINETAKO OINORDETZA ERAKUNDE BEREZIEN ALDERAKETA; IV. OINORDETZA ERAKUNDEEN ETA GAITASUN MUGATUA DUTEN PERTSONEN IKUSPUNTU FISKALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN; V. ONDORIOAK; VI. BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO MATERIALAK.

LABURDURAK

AAO	Aragoiko Aldizkari Ofiziala
art.	Artikulua
AZFK	Aragoiko Zuzenbide Foralaren Kodea
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EHAA	Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria
EK	Espainiako Konstituzioa
EZZ	Euskal Zuzenbide Zibila
GAO	Galiziako Aldizkari Ofiziala
KAO	Kataluniako Aldizkari Ofiziala
KZ	Kode Zibila
KKZ	Kataluniako Kode Zibila
ODZ	Oinordetza eta Dohaintzen Zerga
or.	Orrialdea
zkia.	Zenbakia

I. SARRERA

1. Helburua eta justifikazioa

Ikerketa honen helburua pertsona fisikoaren jarduteko gaitasunaren eta Euskal Zuzenbide Zibilaren (aurrerantzean EZZ) arteko harremana ikertzea eta azaltzea da, bien arteko harremana uztartzeko asmoz. Hala ere, hautatutako bi kontzeptu edo gaiak zabalegiak direnez, lehenik eta behin lanaren edukiaren hurbileko behaketa zehaztu behar da. Alde batetik EZZ dugu, gaur egun lege berezian¹ jasotzen dena nagusiki, eta horren barne hainbat gai azertzen dira, hala nola, zuzenbide zibil propioaren izaera juridikoa, euskal ondarearen ulerkera, oinordetzaren inguruko xedapenak eta berezitasunak, eta ezkontza ondasunen araubidea. Bestetik, gaitasunari dagokionez, gai guztiz zabala da, orokorrean Kode Zibilean² (aurrerantzean KZ) jasotzen dena, non arlo pertsonala, jarduera eta erantzukizun legala, ondare arloa... azertu daitekeen.

Beraz, ikerketa proiektu honetan hurrengo gaia hartuko da kontuan: EZZren oinordetza erakundeen azterketa gaitasun mugatua duen pertsonaren ikuspuntutik; gizatalde honen jarduteko eskubidearen bilakaera kontuan hartuz. Gai honen hautaketaren arrazoia arlo biek duten gizarte garrantzia da, kontuan hartuta Bizkaiko Lurralde Historikoan epai bidez adierazitako gaitasun mugatua duten sei mila³ pertsona baino gehiago bizi direla, gizatalde zaugarri nabarmena suposatuz. Gainera gaitasun mugatua duten pertsonen eskubideen babesa pil-pilean dagoen gaia da, aurrerago

¹ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa.

² Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia.

³ GORABIDE: Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko elkarte bizkaitarra. *Adimen desgaitasuna zifretan*. Bilbo: 2019.

azalduko den Espainiako Gorte Nagusietan onartu berria izan den legea dela eta, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko⁴. Oinordetza eta gaitasun mugatuaren egoera gizartean hainbeste goratzen den familia kutsuarekin dute harremana, zentzu batean ulertu daitekeelako lehenengo kontzeptuaren bidez bigarren babestu daitekeela. Gainera oinordetza gizabanako guztion eskubidea da, eta gaitasun mugatua duen pertsona hortik baztertzea ordenamendu juridikoak babesten dituen balore eta bertuteen aurka doa era zuzenean. Beraz, arlo bien harremana behatzea eta azaltzea nahitaezkoa izango litzateke bai ikuspuntu juridikotik bai gizarte ikuspuntutik.

Ikerketa burutzeko lehenik eta behin uztartutako kontzeptuak iker-tuko dira, haien ezaugarri eta bilakaera azaltzeko helburuarekin. Ondoren EZZren legeriak arautzen dituen testamentugilearen borondatean oinarritutako oinordetza erakundeak banan-banan aztertuko dira, gaitasun mugatua duten pertsonen inguruko arauketaren eragina behatuz, Erakundeen banakako azterketa horretatik abiatuz, zuzenbide zibil berezia duten bestelako lurraldeetan arautzen diren erakunde berezieki-ko alderaketa burutuko da, ordenamendu juridiko bakoitzaren ezaugarri nagusiak nabarmenduz. Azkenik harreman horretatik eratorritako oinordetzari buruzko fiskalitatea azalduko da, Bizkaiko arau fiskalaren ikuspuntutik. Lanaren metodologia orokorra ikerketa normatiboan oinarrituko da, non araudi, legeri eta doktrina korronte desberdinak aztertuko diren gaitasun mugatuaren egoera eta oinordetza ikertzeko eta azaltzeko. Hala ere, metodologiak ikuspegi praktikoa ere hartuko du kontuan, gaiak erlazionatuko baitira, batak bestean duen eragina adieraziz eta honek suposatzen dituen ondorio juridikoak planteatuz.

⁴ 8/2021 Legea, 2021eko ekainaren 2koa, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko. EAO, 2021eko ekainaren 3koa, 132 zkia.

Ikerketako arloen behaketarekin hasi baino lehen, lanaren helburua eta justifikazioa borobiltzeko hurrengo aipamenak edo ñabardurak adierazi behar dira: Jadanik zehaztu den bezala, ikerketa honen muina ez da gaitasun mugatua duen pertsonaren aspektu pertsonala izango; beraz honen inguruko ñabardurarik egin arren, arlo pertsonalari begira bideratutako babes erakunde eta protokoloak hautatutako gaitik at geratuko dira, gaia oinordetzan ardaztuz. Oinordetza erakundeak behatzean, EZZean arautzen diren kausatzailearen borondatean oinarritutakoak hartuko dira kontuan; era berean gaitasun mugatuaren egoera aztertuz, hau kausatzailea eta oinordekoa izango balitz. Beraz ulertzen da miaketaren helburua, oinordetza arloan gurasoek edo tutoreek gaitasun mugatua duen oinordekoaren alde egiteko duten aukerak, edota gaitasun mugatua duen pertsonak bere oinordetza erabakitzeko eta zehazteko dituen aukerak aztertzea dela; kasuan-kasu dagokion ikuspuntua gailenduz. Honen harira, ikerketan zehar azken urteetan gaitasun mugatua duten pertsonen inguruko legeri aldaketa joera aurrerakoa islatuko da, erregulazio eta praktiken bilakaera azalduz. Hau da, gizatalde honetako pertsonen babesarekin batera hauen jarduera autonomia bilatu da, batez ere haien jarduteko gaitasunari begira, pertsonaren duintasuna ahalik eta era osoenean mantentzeko asmoz.

2. Oinordetza zuzenbidearen alderaketa juridikoa: Zuzenbide erkidea eta Euskal Zuzenbide Zibila

Behin gaia aurkeztuta, honen oinarri diren kontzeptuen jarraipen eta behaketari ekin beharko litzateke, oinordetzaren ulerkerarekin hasiz. Oinordetza zuzenbidea, Zuzenbide pribatuko adarra da, pertsona baten heriotzaren ondorioz sortzen den ondare egoera juridikoa arautzen duena. Oinordetzaren bitartez, subjektu bat beste subjektu baten lekuan jartzen da, azken horrek zituen harreman juridikoen alderdi aktiboan zein pasiboan. Oinordetza gertatzeko baldintzak oso desberdinak dira, eta antolamendu juridikoaren arabera, oinordetza baliozkoa eta eragingarria

izateko betekizunak ugariak dira. Jarraiki oinordetzaren bi erregulazio alderatuko dira, zuzenbide erkidea eta EZZ.

Espainiako ordenamendu juridikoan oinordetzaren oinarri juridikoa Espainiako Konstituzioan (aurrerantzean EK) jasotzen da⁵; baina honek oinordetza bermatu arren esangura bikoitza du, alde batetik jarauntsia babesten du erakunde eta norbanakoen eskubide berezi gisa, baina bestetik ulertu daiteke ez dagoela jarauntsirako oinarrizko eskubiderik. Xedapen honetatik abiatuz oinordetza KZ arautzen da, hirugarren liburuko hirugarren tituluan hain zuzen ere. Oinordetza *inter vivos* burutzeko aukera egon arren, orokorrean oinordetzaren izaera *mortis causa* da, aurretiaz aipatu den moduan kausatzailearen heriotzaren ostean sortzen den egoera juridikoa baita. Oinordetza fenomeno zeharo konplexua da, hortaz honen motaren kalifikazioa egiteko, bi ikuspuntu izan behar dira kontuan, titulua unibertsala edo partikularra den, eta oinordetza testamentu bidezkoa edo *ab intestato* den.

Historian zehar Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) lurralde historikoek euren zuzenbide propioa izan eta garatu dute, mendeetan zehar gauzatutako usadio eta praktikak direla eta, foruak hain zuzen ere. Gaian zentratuz, nahikoa da azaltzea euskal foruen behe jotzea, MONREAL ZIAREN esanetan, 1876.urtean eman zela⁶ III. Guda Karlisten amaierarekin bat, baina eskubide gutxi batzuk gaur egunera arte eutsi dira, fiskalitatea eta zuzenbide zibilaren berezitasunak besteak beste. Aro demokratikoa aztertuz, EZZren oinarri juridikoak bi dira; alde batetik EKren 149.1.8. artikulua, non lurralde forudunen legedi zibilaren garapena eta aplikazioa baimentzen den, eta bestetik EAEko Autonomia

⁵ Espainiako Konstituzioa. EAO, 1978ko abenduaren 29koa, 311 zkia.33.art.

⁶ MONREAL ZIA, G. "Foruak ezeztatzeke 1876ko uztailaren 21eko Legea (aurrekariak eta Kongresuan izaniko izapidetzea)". *Revista Iura Vasconiae*, 2013ko abendua, 10/2013 zkia., 39-192 or.

Estatutuaren⁷ 10.5.artikulua, non lurralde historikoen zuzenbide zibil foralaren kontserbazioa, aldatzea, bilakaera eta finkapena onartzen den.

Gaur egun indarrean dagoen araua EZZri buruzko 5/2015 legea da, alde batetik tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidearen legatua bizirik mantentzen duena eta bestetik begirada gaurko munduan eta egungo Euskal Herrian jartzen duena, non hirugarren eta bigarren sektoreek pisu handia duten, zuzenbide honen jatorrizko formulazioak erantzuten zion landa gizartetik gero eta gehiago aldentuz. Era berean lege honek, beste ordenamendu juridikoak hartzen ditu kontuan interpretazioari eta ordeztari begira, KZ eta Europar Batasuneko erregelamenduak besteak beste.

Legearen atariko tituluan jasotzen dira EZZaren iturriak, lege honen xedapenak, lurraldeko ohiturak eta zuzenbide hori eratzen duten printzipio orokorrak, hain zuzen ere; Euskal Herriko organo judizialek sortutako jurisprudenziaz baliatuz interpretazioari begira. Era berean legeak tradiziozkoa den askatasun zibilaren printzipioa ahalbidetzen du, betiere interes edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada eta hirugarrenari kalterik egiten ez badio; eta historikoki EZZren printzipio eratzailak izan direnak jasotzen ditu, solidaritatea, jabetzaren funtzio soziala, pertsona, eta hizkuntza koofizialak besteak beste. Aurreko legeriekin alderatuz, arau honen berezitasuna lurralde aplikazio eremua da, EAEko lurralde osora zabaltzen baita, salbu eta manu zehatzen bat lurralde jakin batera biltzen bada; printzipio bera jarraituz auzotasun zibilari begira.

Amaitzeko, eta oinordetzan zentratuz, arlo hau legeko II. tituluan arautzen da, historikoki aplikatu izan diren ohiturazko arauak nahiz idatzizkoak barneratuz; hurrengo atalean aztertuko dena, bertan adieraziz berezitasun nabarmenenak zuzenbide erkidearekin alderatuz.

⁷ 3/1979 Lege Organikoa abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia estatutuari buruzkoa. EAO, 1979ko abenduaren 22koa, 306 zkia.

3. Gaitasun mugatuaren bilakaera ikuspuntu juridikotik. 8/2021 legearen eragina

Jadanik oinordetzaren araudia eta aniztasun juridikoa aztertuta, gaitasunaren mugatzea azaltzeko unea da. Espainiako ordenamendu juridikoaren kronologian ardatzuz, behatu beharreko lehen araua KZ da, hemen jaso izan baitira gaitasun mugatuari buruzko lehen manuak, XIX. mendean hain zuzen ere. Honen arabera, pertsona fisikoek pertsona izateagatik gaitasun eta nortasun juridikoa izango dute; hau da, pertsona izateagatik denok izango dute eskubide eta betebeharrak desberdinen titularrak izateko gaitasuna, harreman juridikoen subjektu izanik. Gaitasunaren hasiera jaiotzarekin batera emoten da, jaiotza legeak araututako manuetan burutzen bada⁸, eta amaiera pertsona hiltzean gertatzen da, amaiera horrek pertsona horren titulartasunaren menpeko harreman juridiko gehienak azkenduz.

Esan bezala, gaitasun juridikoaren bidez, pertsonak hainbat eskubide eta betebeharren, eta honen harreman eratorrien titularra izan daiteke, baina eskubide eta betebeharrak egikaritzeko pertsonak ahalmena izan behar du, jarduteko gaitasuna hain zuzen ere. Legeak jarduteko gaitasuna eskuratzeko irizpide objektiboak jasotzen ditu, nabarmenena adin nagusitasuna izanik, baina jarduteko gaitasuna mugatu daiteke pertsonaren inguruabarrak direla eta. Beraz adin nagusitasuna lortuta ere, pertsonaren egoera naturala aztertuz gero gaitasunaren mugaren bat behatzen bada, honen jarduteko gaitasuna mugatzeko aukera egongo litzateke.

Gaitasun mugatua zehazteko arrazoiak legean⁹ jasotzen dira, non hasiera batean gaixotasun edo kausa zehatzak zerrendatzen ziren, baina

⁸ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailearen 27koa, 206 zkia. 29-30.art.

⁹ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailearen 27koa, 206 zkia. 200.art.

1983.urteko erreformaren¹⁰ ostean, ezgaitzeko arrazoiak izaera iraunkorreko gaixotasun edo akats psikikoak edo fisikoak dira, norberaren burua gobernatzeko ahalmena oztopatzen dutenak hain zuzen ere. 1983.urteko erreformatik hona, gaitasuna mugatzeko epai irmoa beharrezkoa da, eskubide mugapenaren berme nagusia izanik, non ezgaitasunaren nondik norakoak, honetatik eratorritako debekuak eta pertsonari dagokion babesa zehazten den, babesa hainbat erakunde bidezkoa izanik, tutoretza, kuradoretza, defendatzaile judiziala¹¹...

Hots, aztertutako lehen arau honetatik gaitasun mugatua duen pertsonari buruzko dikotomia bat ondorioztatu daiteke; alde batetik KZren helburua pertsonaren egoera pertsonala eta ondare egoera babestea da, kasuan kasuko babes erakundearen bitartez, baina bestetik, babes horrek gizatalde horren baztertzea suposatzen du, honen eskubideak ez dituelako kontuan hartzen, eta ez duelako gaitasun mugatuko pertsonen gizarteratze orokorra sustatzen.

1978.urteko Konstituzioak Espainiako estatuan ezarri zuen zuzenbideko estatu sozialaren ondorioz, gaitasun mugatua zuten pertsonen egoerak aldaketa batzuk jasan zituen, batez ere EK_n xedatzen diren hiru manuren bitartez¹²; manu horien arabera pertsonaren duintasuna, hari dagozkion eskubide ukiezinak, nortasunaren hazkunde librea, lege begirunea eta besteeikiko eskubideak, ordenu politikoa eta giza bakearen oinarriak dira. Era berean espainiar naziokotasuna duten pertsonak legearen arabera berdina direla aldarrikatzen da, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik eratorritako bekaizkeria debeka-

¹⁰ 13/1983 Legea, urriaren 24koa, Kode Zibilaren erreformari buruzkoa tutoretza arloan. EAO, 1983ko urriaren 26koa, 256 zkia.

¹¹ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. Gaceta de Madrid, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia.. I. Liburua, X. Titulua .

¹² Espainiako Konstituzioa. EAO, 1978ko abenduaren 29koa, 311 zkia. 10,14,49.art.

tuz. Azkenik gaitasun mugatua duten pertsonen aipamen zehatza egiten da, non botere publikoen aldetik kolektibo honekiko sustatu beharreko gizarte integrazioa eta babesa arautzen den.

EKn araututako xedapen horien ondorioz, gaitasun mugatua duten pertsonen autonomia juridikoa sustatzearen lehen pausua eman zan, babes teknika eta erakundeekin bateratuz. Bilakaera hori hainbat aspektu eta esparrutan adierazi izan da, batez ere pertsona honen birgizarteratze sozial eta profesionalean; baina arlo zibilean ere aldaketa batzuk suposatu zituen, leunagoak hori bai. Aurreko legeriarekin alderatuz, xedapen konstituzionalek jadanik aipatutako KZ erreforma partziala suposatu zuten, 1983.urtean burututakoa, non gaitasun mugatuaren epai irmoaren bermea eta gaitasuna mugatzeko arrazoien bilakaera aurrerakoaia zehaztu ziren.

EKtik abiatuta, aztertutako subjektuen aldeko neurri ugari garatu arren, Espainiako ordenamendu juridikoko arlo zibilean ez zan arauketa nabarmenik aldarrikatu, 2007.urtera arte, Espainiako estatuak 2006ko abenduaren 13an New Yorken ospatutako konbentzioa berretsi zuenean, non pertsona ezgaituen eskubideak hitzartzen diren¹³. Hitzarmen honetan ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonen hainbat eskubideen aldarrikapena jasotzen da, baina 12.artikulua legearen aurrean gainerakoen onarpen bordinari buruzkoa da. Xedapen horren oinarria lehenengo puntuan jasotzen da, eta LLEDÓ YAGÜEren arabera gaitasun mugatua duten pertsona ororen nortasun juridikoa oinarritzko eskubide legez aldarrikatzen da, beharrezkoa dena eskubide eta betebeharren titularra izateko¹⁴. Hortaz nortasun juridikoa oinarritzko giza eskubide

¹³ 2006ko abenduaren 13an New Yorken ospatutako konbentzioaren berrespena, non pertsona ezgaituen eskubideak hitzartzen diren. EAO, 2008ko apirilaren 21ekoa, 96 zkia.

¹⁴ LLEDÓ YAGÜE, F. "La convención de Nueva York y la necesaria reformulación de la discapacidad". *R.E.D.S.*, 2019ko urtarrila, 14 zkia. 140-147 or.

baten izaera zehaztuz, xedapenaren gainerako puntuetan gaitasun mugatua duten pertsonen gaitasun juridikoaren babes adierazten da, amaieran ondare arloan zentratuz.

Hitzarmenaren arabera, pertsona guztiak gaitasun juridiko bera izan behar dute bizitzako aspektu orotan, gaitasun honek jarduteko gaitasuna barneratuz, gizarte partaidetzara begira beharrezko baldintza baita. Ordenamendu juridiko gehienetan, Espainiakoa barne, gaitasun juridikoa pertsona izatearekin bat dator baina jarduteko gaitasuna mugatzeko modukoa da, orokorrean gaitasun mentalean oinarrituz.

Manuaren esanetan, gaitasun mentalean identifikatutako arazoen ondorioz pertsonaren jarduteko gaitasuna mugatzea edo oztopatzea errakuntza bat da, honek duen bekaizkeriagatik, eta adimenaren ebaluazio zehatza burutu daitekeela suposatzen duelako¹⁵. Bi errakuntza hauen ondorioz, pertsona batek ez badu gaitasun mentalaren ebaluazioa zehaztutako balo-reetan gainditzen oinarritzko eskubide bat ukatzen zaio, legearen aurreko onarpen berdintasuna alegia.

Ondare arloari dagokionez, hitzarmenak estatu parte hartzaileak derriortzen ditu beharrezko neurrien garapena burutzeraz gaitasun mugatuko pertsonen berdintasuna bermatzeko gai ekonomiko eta finantzarietan. Xedapenak arlo honen inguruko aipamena beren-beregi jasotzen du, ikuspuntu historikotik gaitasun mugatua duten pertsonen eskubide hau ukatu zaielako, aurretiaz aipatutako adimen gaitasun ezan oinarrituz. Konbentzioaren arabera, ondareari lotutako eskubide horiek ukatu beharrean, hauek jarduteko laguntza eskaini behar da, gaitasun mugatua duen pertsonaren jarduera juridikoa ahalbidetzeko neurriak ezarriz.

¹⁵ BARRANCO, C., CUENCA, P., eta RAMIRO, M. A. “Capacidad jurídica y discapacidad: el artículo 12 de la convención de derechos de las personas con discapacidad”. *Anuario Facultad de Derecho – Universidad de Alcalá V*, 2012ko ekaina 53-80 or.

New Yorkeko Hitzarmenaren berrespenak eta honek suposatutako jurisprudenzia anitzak¹⁶ Espainiako ordenamendu juridikoan eragin du, gaur egun onartu berria izan den eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean EAO) argitaratu den legea dela eta, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena ezgaituen gaitasun juridikoa gauzaten laguntzeko. Lege berri honek, oraindik indarrean egon ez arren, sistema barri baten oinarriak ezartzen ditu, gaitasun mugatua duen pertsonaren borondatean eta erabakietan oinarritua, azken finean pertsona hauek erabakiak hartzeko eskubidearen titularrak baitira. Hortaz, autonomiaren sustapena bultzatzen duen ekimen honen aplikazioa behar duen edozein pertsonara hedatuko da, gaitasun mugaketaren agiri edo erabaki administratibo bat izan zein ez. Gaitasun mugatua duen pertsonaren gaitasun juridikoaren egikaritza bermatzeko ekimen honen beharrezkotasuna nabarmena izan da, are gehiago, hainbat autorek hau salatu eta agerian utzi dute, PEREÑA VICENTEK¹⁷, besteak beste. Era berean, lege honek ordenamendu juridikoko hainbat araudi zibilen aldaketa suposatzen du, hala nola, Erregistro Zibilaren Legea¹⁸, Notariotza Legea¹⁹, edo Hipoteka Legea²⁰, baina aurretiaz azaldutako araudiarekin konparatzeko, legearen eraginaren azalpena KZean ardaztuko da, zehazki oinordetzaren eta ondarearen arloan.

¹⁶ BLAZQUEZ MARTIN, R. "El tratamiento de la discapacidad en la jurisprudencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo" *Revista La Ley*, 2018ko urria, 15141/2018 zkia. I gaia.

¹⁷ PEREÑA VICENTE, M. "El Derecho sucesorio como instrumento de protección del discapacitado" *Revista La Ley*, 2004ko otsaila, 228/2004 zkia.

¹⁸ 20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa Erregistro Zibilari buruzkoa. EAO, 2011ko uztailaren 22koa, 175 zkia.

¹⁹ Notariotza Legea. *Gaceta de Madrid*, 1862ko maiatzaren 29koa, 149 zkia.

²⁰ 1946ko otsailaren 8ko Dekretua, Hipoteka Legearen idazkera ofizial barria onartzen duena. EAO 1946ko otsailaren 27koa, 58 zkia.

Behin lanaren helburua, justifikazioa eta beharrezko kontzeptuak azaldua, lanaren edukia jorratuko da, oinordetza erakundeak banan-banan behatuz, gaitasun mugatua duten pertsonen eskubideen babesaren ikuspuntutik hain zuzen ere, gaur egun indarrean dagoen araudia eta onartu berria izan den legeak izango duen eragina kontuan hartuz.

II. OINORDETZA ERAKUNDEEN AZTERKETA GAITASUN MUGATUA DUEN PERTSONAREN IKUSPUNTUTIK

Oinordetza erakundeak banan-banan aztertu baino lehen, LEÑA FERNÁNDEZek defendatzen duen ideia baten aipamena egin behar da, guraso edo tutoreek gaitasun mugatua duen ondorengoaren alde egin ahal dituzten ondare xedapen moten inguruan²¹: Alde batetik ondorengo horren mesedeetan zuzenean egindako xedapenak dagoz, eta honek bi eratara burutu daitezke, dohain eta baldintzarik gabe, edota xedatzeko muga edo debekuekin, non ondorengo horren babes bermatzen duen arduradunaren baimena eskatzen den. Bestetik, zeharkako xedapenak dagoz; kasu honetan xedapenak hirugarren baten mesedeetan egiten dira (gaitasun mugatua duen subjektuaren senide edo babeslea orokorrean), baina honek xedapena onartzean, gaitasun mugatua duen pertsonaren zaintza eta mantenuaren zama bereganatzen du. Aipamen honetatik abiatuz EZZari buruzko legean jasotako oinordetza erakundeak aztertuko dira, testamentu bidezkoekin hasita.

²¹ LEÑA FERNÁNDEZ, R. *Discapitados y testamento*. Madril: La Llave argitaletxea, 2004, 205-206 or.

1. Testamentu bidezkoak

A) Testamentu mankomunatua

Testamentu mankomunatua EZZri buruzko 5/2015 legeko 24 eta 29.artikuluen artean arautzen da, eta EZZeko oinordetza erakunde berezi bat da, zuzenbide erkidean ez baita onartzen. KZren arabera, zuzenbide erkideko lurraldean ez dira onartzen testamentu mankomunatuak, ez Espainian ez atzerrian burututakoak. Honen arrazoa KZean²² bertan jasotzen den testamentuaren izaera pertsonala da, borondatearen askatasuna eta xedapenen inguruan atzera egiteko banakako aukera defendatzen duen ezaugarria. Hala ere, esan den moduan, zuzenbide zibil propioa duten lurralde ugarian, EAEn besteak beste, testamentu mota hau onartzen da; are gehiago Euskadiren kasuan testamentu hau burutzeko aukera euskal auzotasun zibila duten guztiei zabaldu zaie²³, nahiz eta EAetik kanpo egin, aurretiaz zegoen Bizkaiko Lurralde Historikoko muga gaindituz.

Testamentu mankomunatua, pertsona bakarreko testamentuaren aukera alternatibo nagusia da, autore ugariren arabera, GIL RODRIGUEZ besteak beste, bi ezaugarri nagusi dituena: elkarrekikotasuna eta salbuespenezko izaera²⁴. Askatasun zibilarekin erlazionatu beharreko testamentu mota da, honen muina kausatzaile bat baino gehiagoren borondatea instrumentu bakarrean jasotzea baita. Era berean, formaz gain, testamentu mota honen edukia oso interesgarria da, honen izaera baterakoa derrigorrezkoa ez izan arren, nabaria delako; hau da, testamentuko eduki guztia ez du borondate bakar bati erantzun behar nahitaez, baina hau hitzartu daiteke

²² Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia. 669.art.

²³ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 10.art.

²⁴ GIL RODRIGUEZ, J. eta GALICIA AIZPURUA, G. *Manual de Derecho Civil Vasco*. Barcelona: Atelier argitaletxea, 2016. 323-324.or.

kausatzaileen artean, bai elkarri bai hirugarren bat begira. Gaur egun indarrean dagoen legearen arabera, testamentu mankomunatuaren emailek ez dira ezkontuta egon behar ezta afektibotasun harremanik izan behar; hortaz gaitasunari begira alde batera utzi da ezkontzari buruzko gaitasunaren manuak, baina arauaren arabera testamentu emaileak emantzipatuta egon behar dira. Gainera testamentua baliozkoa izateko, testamentu irekia izan behar da, kasu orotan Notario aurrean egiletsi behar dena.

Aipatu den moduan testamentu honen berezitasun nabarmena beste testamentu motetikiko honen ezeztatzea da, testamentuan emaile bat baino gehiagok parte hartzen dutelako bai elkarrekiko bat hirugarren batekiko kasuan. Orokorrean testamentugile bien adostasuna behar da testamentu mankomunatua aldatzeko edo ezezteko, baina gerta daiteke parte hartzaile bakar batek aldatu edo ezeztu nahi izatea bestea bizirik dirauen bitartean. Kasu honetan legeak ezeztapena edo aldaketa aurrera eramanez nahi duen testamentugileari testamentu irekia edo oinordetza ituna burutzea eskatzen dio, beste testamentugilea era frogagarrian jakinaraziz; hala ere jakinarazpen hori ez da beharrezko baldintza izango, eta aldaketa edo ezeztapena ahalbidetzen duen agiria solemnea izanez gero, testamentu mankomunatuak xedapen guztiak eraginik gabe geldituko lirarteke²⁵.

Behin testamentu mankomunatuaren izaera azalduz, gaitasun mugatua duen pertsona izan ahal dituen onura edo berezitasunak aztertu behar dira, subjektu hau bai kausatzailea bai jaraunslea izango balitz. Suposatuz kausatzaileak gaitasun mugatuko pertsonaren guraso edo tutoreak direla, testamentu mankomunatuak erabilgarritasun handia izango luke, bien artean ondasun batzuen helmuga zehatza ezarri ahal delako, batez ere legean araututako elkarren mendekotzat jotako ondare izaerako klausu-

²⁵TENA PIAZUELO, I. “La sucesión por testamento mancomunado o de hermandad en el nuevo Derecho Civil Vasco”. *Revista de Derecho Civil*, 2019ko iraila, VI liburua, 4 zkia., 45-88 or.

len bidez²⁶. Esan bidezko klausula mota honen bidez testamentua ezingo litzateke ezta aldatu ezta ezeztu testamentugile baten borondatez beste testamentugilearen adostasunik gabe, eta ez litzateke egongo ezezteko ezta aldatzeko modurik testamentugile baten heriotza ostean. Beraz, gaitasun mugatua duen ondorengoari begira, testamentu mota honek bere ondare egonkortasuna bermatzen eta babesten du, batez ere testamentugileek etorkizunean burutu ahal duten ezkontzei edota izan ahal dituzten gainerako ondorengoei begira²⁷.

Testamentu mankomunatuan ezarritako jarauntsia onartzeari begira, gaitasunari buruzko arauketa orokorra aplikatzen da, hots KZ hartzen da kontuan zuzenbide ordeztaille legez. KZren arabera gaitasun mugatua duen pertsona batek jarauntsia onartu dezake, kuradorearen laguntzarekin betiere epai irmoak hau ahalbidetzen badu²⁸; baina sarreran azalduko 8/2021 lege berriarekin, jarauntsiaren onartzea orokorrean gaitasun mugatua duen pertsonaren eskutan geratuko da, salbu eta honek dituen babes neurriek beste eraren bat izango balute²⁹. Hau da, legearen izaera aurrerakoiaren eraginez, arau orokorra aldatzen da, gaitasun mugatua duten pertsonak jarauntsia onartzea ahalbidetuz, salbu eta epaileak honen babesa bermatzeko erabaki duen babes erakundearen baldintzen artean hau aurkitzen baldin bada. Hortaz agerikoa da legegilearen ekimenak helburu legez duela gaitasun mugatua duen pertsonaren jarduteko autonomia.

²⁶ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 25.3.art.

²⁷ URRUTIA BADIOLA, A. M. “Nota breve sobre capacidad y Derecho Civil Vasco” *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 2016ko urtarrila, 27 zkia., 615-627 or.

²⁸ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia. 996.art.

²⁹ 8/2021 Legea, 2021eko ekainaren 2koa, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko. EAO, 2021eko ekainaren 3koa, 132 zkia. 2.art. 42. xedapena.

Gaitasun mugatua duen pertsona kausatzaile legez jarduten duen kasua behatuz, onarpenarekin moduan, gaitasunaren arauketa orokorra aplikatzen da. KZren arabera, ezin dute testamentua egin ohikotasunez edo aldian-aldian zentzutasunik ez dutenek; aldiz epai irmoz ezgaitua izan den pertsonak, epaiak ez badu kontrakoa jasotzen, testamentua egin nahi izango balu Notarioak bi aditu izendatuko ditu, aldez aurretik ezgaitua azter dezaten. Adituen ustez ezgaituak horretarako gaitasunik ez duenean, Notarioak ez du haren testamentua eskuetsiko³⁰. Hala ere, onarpenaren kasuan gertatzen den moduan onartu berria izan den 8/2021 legeak eta honen ekimena berresten duen jurisprudentziak³¹, egoera hau aldatuko du, gaitasun mugatua duen pertsonari ahalmen hau ezeztuz soilik, testamentua egiteko unean ezin duenean bere borondatea adierazi bere kabuz edota beharrezko laguntzaz baliatuz. Era berean gaitasun mugatua duen pertsonak testamentua balioetsi ahalko du Notarioaren iritziz, adimen nahikoa duenean bere borondatea adierazteko nahiz ulertzeko, zein babes erakunderen menpe dagoen erreparatu gabe; beraz, sustapen hau aurrera eramateko Notarioak bermatu beharko du testamentugileak xedapen guztiak ulertzen dituela, kasuan kasuko bide egokienak erabiliz. Testamentugilearen borondatea edozein medioren bidez helarazi ahal zaio Notarioari, honek ondoren idatzi dadin formalitate guztiak jarraituz, eta azkenik xedapen guztiak irakurriz ozenean testamentugilearen ulermena bermatzeko³². Beraz, testamentua egiteko ahalmenari dagokionez, lege berriak gaitasun mugatua duen pertsonaren eskubidea egikaritzeko

³⁰ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia. 663.art.

³¹ BLAZQUEZ MARTIN, R. "El tratamiento de la discapacidad en la jurisprudencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo" *Revista La Ley*, 2018ko urria, 15141/2018 zkia., VI gaia.

³² 8/2021 Legea, 2021eko ekainaren 2koa, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko. EAO, 2021eko ekainaren 3koa, 132 zkia. 2.art. 27. xedapena.

autonomiaren aldarrikapena defendatzen du, honen egoera edo babes erakundeak kontuan hartu beharrean, testamentugilearen adierazpen eta ulermen orokorrean zentratzen baita.

B) Komisario bidezko testamentua

Komisario bidezko testamentua EZZri buruzko 5/2015 legeko 30 eta 46.artikuluen artean arautzen da, eta EZZeko oinordetza erakunde berezi bat da, zuzenbide erkidean ez baita onartzen. Kodegintzaren prozesuan komisario bidezko testamentuaren erakundeak baztertu zen, beraz indarrean dagoen KZak ez du hau jasotzen, are gehiago honen kontrako xedapen bat jasotzen du³³, testamentuaren izaera pertsonala argudiatuz. EZZean testamentu mota hau nabaria izan da, Bizkaiko zuzenbide zibil foralean hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Zaharretik arautua izan dena, eta gaur egungo legerira arte heldu dena hainbat aldaketa barneratuz. Komisario bidezko testamentuaren aitzindari eta oinarria Bizkaiko *alkarpoderoso* da³⁴, honen ezaugarri nabarmenarekin batera, eskuordetza hain zuzen ere. Testamentugilearen eta honek hautatutako komisarioaren arteko konfiantza oinarritutako eskuordetza horrek oinordetzaren izaera malgutzen du, oinordetza familia eta ondare egoera eta inguruabar orotara moldatuz; zuzenbide erkideak defendatzen dituen testamentuaren izaera pertsonala eta *mortis causa* oinordetzaren efektuen denbora bitartearen aurka joanez. Beraz Bizkaiko *alkarpoderoso* klasikotik abiatuz, gaur egun komisario bidezko testamentua EAE osora hedatzen da, euskal auzotasun zibila duten pertsona guztiek hau burutzeko aukera izanik; kontrara izendatutako komisarioak ez du auzotasun zibil honen baldintza bete behar.

³³ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailearen 27koa, 206 zkia. 670.art.

³⁴ URRUTIA BADIOLA, A. M^a. “Sección cuarta. De la sucesión por comisario” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M^a. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 333-349 or.

CELAYA IBARRAREN esanetan, kausatzaileak komisarioari esleitzen dion ardura hiru erataratu itxuratu daiteke: testamentugilearen borondatearen eramaile soil moduan, testamentua egiteko eskuordetu moduan, edo komisario ezkontide alargunaren kasuan testamentua egiteko eskuordetu legez eta familia ondarearen kudeatzaile eta ordezkari moduan³⁵. Hortaz ondorioztatu daiteke komisarioaren figura guztiz nabarmena dela EZZean eta honen jarduera guztiz zabala dela, familia, oinordetza eta ondare zuzenbidearekin erlazionaturik egonez. Edu honetan, komisario bidezko oinordetzan hiru une bereiztu daitezke kronologikoki, testamentua egiteko ahalmenaren ematea kausatzailea bizi den bitartean, testamentua egiteko ahalmenaren egikaritzea kausatzailea hil ostean, eta testamentua egiteko boterearen azkentzea, legean jasotako arrazoiengatik³⁶.

Komisarioaren izendapena Notario aurrean burutu behar da³⁷, hau testamentugilearen ezkontidea (ulermen klasikoa), izatezko bikotea edo beste pertsonaren bat izanik. Ezkontide eta izatezko bikotearen kasuan, komisarioaren izendapena elkarrekikoa izan daiteke, hau bikotearen ezkontza itunean, eraentza itunean edo oinordetza itunean adieraziz, kasuan kasu. Beraz, aurrekoa laburbilduz esan daiteke oinordetza erakunde honetan, komisarioak estatus bikoitza duela, testamentugilearen borondatea eta bere jarduerak suposatzen dituen xedapenak bateratuz, testamentugilearen borondatearen gailentzea eta jardueraren denbora jarraipena zaintzea besteak beste.

³⁵ CELAYA IBARRA, A. “El testamento por comisario” *Anuario de Derecho Civil*, 1972ko martxoa, 25.liburukia, 3 zkia., 736 or.

³⁶ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 45.art.

³⁷ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 31.art.

Behin komisario bidezko testamentuaren izaera azalduz, gaitasun mugatua duen pertsonan izan ahal dituen onura edo berezitasunak aztertu behar dira, subjektu hau bai kausatzailea bai jaraunslea izango balitz. Gaitasun mugatua duen pertsona oinordekoa dela suposatuz, testamentu mota hau oso interesgarria izango honi begira, batez ere gurasoen artean burutzen bada, hauek behatu ahal dutelako epe luze baten haien seme-alaben egoera, kasuan kasuko xedapen mota egokienaren ebaluaketa eta erabakia ahalbidetuz. Gainera testamentua egiten den unean, testamentugileen ondarea oraindik eraketa bidean dago, eta hauek ezin dute jakin etorkizunean zein izango den gainerako seme-alaben eta honen bikoteen jarrera edo ardura gaitasun mugatua duen seme-alabarekiko. Beraz komisarioaren izendapena, bai gurasoen artean bai hirugarren bati begira arazoa ebatziko luke, honek ebaluatu dezakeelako gaitasun mugatua duen ondorengoaren eta honen inguruko senidetasun eta ondare egoera gurasoen heriotzaren ostean, behar besteko erabakiak hartuz eta neurriak ezarri³⁸. Komisarioak ez du soilik jarauntsiaren manuak zehazten edota kudeatzen (testamentugilearen borondatearen arabera) gaitasun mugatua duen seme-alabaren alde, legearen arabera honek tutoretza edo kuradoretza eskatzeko betebeharra du honen mesedeetan gurasoen heriotzaren ostean³⁹, KZean jasotzen den prozedura jarraituz. Hau da, kausatzailearen borondatea egikaritzeaz gain, komisarioak ondorengo gaitasun mugatua duen oinordekoaren ondare babesa aurreikusi behar du.

Komisario bidezko testamentuak suposatzen duen jarauntsia onartzeari begira, 5/2015 legeak aipamen zehatza jasotzen du, oinordekoek jarauntsia onartzeko gaitasuna izan behar dutela argituz, kausatzailearen heriotza unean edota komisarioak testamentuari buruzko boterea egika-

³⁸ URRUTIA BADIOLA, A. M. "Nota breve sobre capacidad y Derecho Civil Vasco" *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 2016ko urtarrila, 27 zkia., 615-627 or.

³⁹ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. *Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa*. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 39.art.

ritzean. Manu honetatik abiatuz aurretiaz azaldutako gaitasunari buruzko arauketa orokorra aplikatzen da, hots KZ hartzen da kontuan zuzenbide ordeztaille legez. KZren arabera gaitasun mugatua duen pertsona batek jarauntsia onartu dezake, kuradorearen laguntzarekin betiere epai irmoak hau ahalbidetzen badu; baina sarreran azaldutako 8/2021 lege berriarekin, jarauntsiaren onartzea orokorrean gaitasun mugatua duen pertsonaren eskutan geratuko da, salbu eta honek dituen babes neurriek beste eraren bat izango balute. Hau da, legearen izaera aurrerakoiaren eraginez, arau orokorra aldatzen da, gaitasun mugatua duten pertsonak jarauntsia onartzea ahalbidetuz, salbu eta epaileak honen babes bermatzeko erabaki duen babes erakundearen baldintzen artean hau aurkitzen baldin bada.

Alde aktibotik behatuz, onarpenarekin moduan, 5/2015 legeak aipamen zehatza jasotzen du, komisarioak testamentuari buruzko boterea egikaritzean behar besteko gaitasuna behar duela azalduz⁴⁰. Beraz, bai kausatzailearen bai komisarioaren ikuspuntutik arestian azaldutako jarduteko gaitasunaren arauketa orokorra aplikatzen da, bien ahalmena bardina baita. KZren arabera, ezin dute testamentua egin ohikotasunez edo aldian-aldian zentzutasunik ez dutenek, eta epai irmoz ezgaitua izan den pertsonak, epaiak ez badu kontrakoa jasotzen, testamentua egin nahi izango balu Notarioak bi aditu izendatuko ditu, aldez aurretik ezgaitua azter dezaten; adituen ustez ezgaituak horretarako gaitasunik ez duenean, Notarioak ez du haren testamentua eskuetsiko. Hala ere, onarpenaren kasuan gertatzen den moduan onartu berria izan den 8/2021 legeak eta honen ekimena berresten duen jurisprudenzia⁴¹, egoera hau aldatuko du, gaitasun mugatua duen pertsonari ahalmen hau ezeztuz soilik, testamentua egiteko unean ezin duenean bere borondatea adierazi bere

⁴⁰ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 32.art

⁴¹ BLAZQUEZ MARTIN, R. "El tratamiento de la discapacidad en la jurisprudencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo" *Revista La Ley*, 2018ko urria, 15141/2018 zkia., VI gaia.

kabuz edota beharrezko laguntzaz baliatuz. Era berean gaitasun mugatua duen pertsonak testamentua balioetsi ahal du Notarioaren iritziz, adimen nahikoa duenean bere borondatea adierazteko nahiz ulertzeko, zein babes erakunderen menpe dagoen erreparatu gabe; beraz, sustapen hau aurrera eramateko Notarioak bermatu beharko du testamentugileak xedapen guztiak ulertzen dituela, kasuan kasuko bide egokienak erabiliz. Testamentugilearen borondatea edozein medioren bidez helarazi ahal zaio Notarioari, honek ondoren idatzi dadin formalitate guztiak jarraituz, eta azkenik xedapen guztiak irakurriz ozenean testamentugilearen ulermena bermatzeko. Beraz, testamentua egiteko ahalmenari dagokionez, lege berriak gaitasun mugatua duen pertsonaren eskubidea egikaritzeko autonomiaren aldarrikapena defendatzen du, honen egoera edo babes erakundea kontuan hartu beharrean, testamentugilearen adierazpen eta ulermen orokorrean zentratzen baita.

C) *Senipartea: Jaraunse izendatzeko askatasuna*

Senipartea EZZri buruzko 5/2015 legeko 47 eta 57. artikuluen artean arautzen da, eta oinordetzaren askatasuna mugatzen duen erakunde hau zuzenbide erkidean ere aplikatzen da, KZk gai honi buruzko jasotzen dituen manuak jarraituz. Legearen arabera senipartea, jarauntsiaren gaineko kuota bat da honen balioaren arabera kalkulatzeko dena, hau da, jarauntsiaren aktibo garbiaren zati alikuota bat legeak ondorengo zehatz batzuei erreserbatzen diena, jaraunsi, legatu edo dohaintza eran⁴²; jaraunselea izendatzeko askatasunaren muga suposatuz. Ezkontide alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikoteak ere senipartearen gaineko eskubidea du, baina lanaren ikuspegia eutsiz, ondorengoei begirako senipartean soilik sakonduko da. Senipartea jarauntsiko ondasunen heren bat da,

⁴² LLEDÓ YAGÜE, F. "Capítulo segundo. De las limitaciones a la libertad de testar". Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 457-474 or.

baina zuzenbide erkidearekin alderatuz, testamentugileak oinordekoei senipartea eskualdatzeko betebeharra du, oinordekoen artean bat edo batzuk hautatuz eta gainerakoak baztertuz, esanbidez nahiz isilbidez. Senipartedunak izango dira kausatzailearen seme-alabak edo ondorengoak edozein gradutan, horien arteko diskriminazio edo lehentasunik gabe, FERNANDEZ DE BILBAO Y PAZren arabera EZZren senipartearen ulerkeria familia ondarearen babes eta batasun soila baita, Bizkaiko infantzonatuan, Laudion eta Aramaion arautzen den tronkalitatearekin bat etorritz⁴³.

Jadanik azaldu den bezala, testamentugileak oinordekoei senipartea eskualdatzeko betebeharra du, baina oinordekoen artean bat edo batzuk hautatu dezake, gainerakoak baztertuz, esanbidez nahiz isilbidez. Hortaz senipartedunen bat gaitasun mugatua izango balu, hau izendatzea senipartedun bakar legez beste guztiak baztertuz, honen babesa bermatzeko neurri eraginkorra izango litzateke. Orokorrean EZZk ez du manu berezirik jasotzen senipartearen aldakuntza edo aplikazio desberdinari buruz gaitasun mugatua duten ondorengoei begira, baina KZk aldiz, zuzenbide ordeztaille moduan ordezenak jasotzen ditu; hau da, ordenamendu juridiko erkideak arautzen dituen jaraunse izendapen orokorraren salbuespenak edo egoera bereziak. Jarraian bi ordezen mota aztertuko dira, gaitasun mugatua duen pertsonaren oinordetza eskubideak aldarazten dituztenak, lehenengoa gaitasun mugatua duen pertsona kausatzailea izango balitz, eta bigarrena oinordekoa izango balitz; onbidezko ordezena eta fideikomiso bidezko ordezena hain zuzen ere.

a) Onbidezko ordezena

KZren arabera, aurrekoek izenda dezake hamalau urte baino nagusia-
goa den ondorengoan ordezena, ondorengoaren zorotasunaren ziozko

⁴³ FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, J. J. *Manual práctico de Derecho Civil Vasco*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2014. 225 or.

ezgaitasun adierazpen eman denean⁴⁴. Beraz, ordezen honen bidez aurrekoek edo gurasoek ezgaitua den ondorengoan ordezen burutu dezakete testamentua, ez dutelako aurrekusten ondorengoak testamenturik burutuko duenik jasaten duen ezgaitasuna dela eta. Onbidezko ordezena burutzeko, zorotasunaren ziozko ezgaitasuna duen ondorengoa adierazpen bidez ezgaitua egon behar da, eta hamalau urte baino gehiago izan behar ditu, hau baita testamentua egiteko gutxieneko adina. Ordezen hau baliozkoa izango litzateke, ondorengo ezgaituak ez badu testamenturik egiten burua argi izan duenean edo bere sen onera itzultzean, eta honek ondoreak sortuko ditu ordezen egilea hiltzen den unean, nahiz eta eragin osoa ordeztuaren heriotzan izan⁴⁵.

Ordezenaren objektuari dagokionez, eztabaida zabala dago ea bertara barne biltzen diren ordeztuaren ondasun eta eskubide guztiak edota soilik ordezena burutzen duten aurrekoek eskualdatzen dizkietenak jarrauntsi edo legatu legez. Honen inguruko 2003.urtean emandako ebazpenak testamentugileek eskualdatutako ondarea hartu zuen kontuan ordezenaren objektua zehazteko⁴⁶, baina gaur egungo korronteez ondare osoaren zehaztapena defendatzen dute ordezenaren objektu legez. Onbidezko ordezenak familia ondarearen babesari errespetatzen du, ez baitu ordeztuaren senipartea murrizten, eta honek senipartedunik izanez gero ordezena burutzen duten aurrekoek hauen senipartea errespetatu behar dutelako testamentua egiterakoan.

⁴⁴ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia. 776.art.

⁴⁵ URRUTIA BADIOLA, A. M. *Familia eta oinordetza zuzenbidea*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2019. 232-234 or.

⁴⁶ 2003ko otsailaren 18ko Erregistroaren eta Notarioritzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena. EAO, 2003ko martxoaren 12koa, 61 zkia.

KZren ikuspuntutik ordezen honek gaitasun mugatua duen ondorengo eta honen ondorengoak egotekotan babesten ditu, honek ezin baitu legezko testamentu bat egiletsi gaur egungo legearen arabera; baina aurretiaz azaldu den ikuspegi aurrerakoia kontuan hartuz, ordezen honek ez ditu gaitasun mugatua duen pertsonaren eskubideak errespetatzen, testamentua egiteko ahalmenaren mugatzen diolako. Beraz, onartu berria izan den 8/2021 legean islatzen den bezala, manu hau ezabatzen da⁴⁷, gaitasun mugatua duen pertsonari bere borondatea testamentu bidez adierazteko eskubidea aitortuz, aurretiaz azaldutako bideak erabilita. Dena dela lege berriak ordezen honen aplikazioaren ñabardura bat jasotzen du laugarren xedapen iragankorrean; honen arabera gaitasun mugatua duen ordeztua legea indarrean sartu ostean hilez gero, hau aplikatuko da, beraz manuaren desagerpenaren ondorioz ordezena ez da onbidezkoa izango eta ezingo du hildakoaren testamentuaren ondoreak izan. Irizpide hau dela bide, kausatzaileak ordeztuari eskualdatutako ondasunek hondakinezko fideikomisoaren izaera izango dute, ordeztua fiduziariora izanik eta ordezkoa fideikomisoduna, hurrengo ordezenean azalduko diren kontzeptuak hain zuzen ere.

b) Fideikomiso bidezko ordezena

KZren arabera, fideikomisozko ordezenak direla bide, testamentugileak jaraunslari ezartzen dio jarauntsi osoa edo horren zati bat artatu eta hirugarren bati eskualdatzeko ardura⁴⁸; beraz esan daiteke fideikomisozko ordezenaren ezaugarri nagusia ondoz ondoko hurrenkera dela, dei bat baino gehiago eginez. Ordezen mota hau berriaz eratu behar da, eta

⁴⁷ 8/2021 Legea, 2021eko ekainaren 2koa, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko. EAO, 2021eko ekainaren 3koa, 132 zkia. 2.art. 37. xedapena.

⁴⁸ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailearen 27koa, 206 zkia., 781.art.

honek epemuga edo baldintza bidez eratu daitezke, erakunde honetan testamentugileak edo fideikomiso egileak, fiduziarioak eta fideikomisodunak parte hartuz.⁴⁹ Laburbilduz, ordezen mota honen bidez kausatzailea hiltzean fiduziarioa izango da lehen jaraunslea, jarauntsiaz gozatu ahal duena baina era berean hau artatzeaz arduratu behar dena, xedatzeko ezintasunarekin. Fiduziarioaren izaera azkenduko da denbora epe bat igarotzean edo baldintza zehatzen bat ematean (hala nola fiduziarioaren heriotza), eta momentu horretan fideikomisoduna bigarren jaraunsle bihurtzen da.

Aurreko ordezenarekin alderatuz, fideikomiso bidezko ordezenak seniparte hertsian eragin ahal du, testamentugileak fideikomisoa ezarri ahalko duelako heren horren gainean gaitasun mugatua duen ondorengoaren alde, hau fiduziarioa eta gainerako senipartedunak fideikomisodunak izanik. Haatik, pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko onartua izan den lege berriak ordezen hau ere aldatzen du, gaitasun mugatua duen pertsonaren ondare eskubideak areagotuz. Xedapen berrien arabera fideikomiso bidezko ordezena mantentzen da, baina senipartearen kargari dagokionez indarrean dagoen manuairen baino haratago doa, gaitasun mugatua duen pertsona fiduziario lege eusten baitu baina jarauntsia osatzen duen ondarea xedatzeko ahalmenarekin, ahalmen hori pertsonak duen kasuan kasuko babes erakundeari lotuta. Beraz arauketa barri honek gainerako senipartedunei begira hondakinen gaineko fideikomisoaren izaera du, orokorrean ondoreak sortzen dituen fiduziarioa hiltzean⁵⁰.

⁴⁹ URRUTIA BADIOLA, A. M^a. *Familia eta oinordetza zuzenbidea*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2019. 234-239 or.

⁵⁰ 8/2021 Legea, 2021eko ekainaren 2koa, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko. EAO, 2021eko ekainaren 3koa, 132 zkia. 2.art. 39. xedapena.

c) Tronkalitatea Bizkaiko lur lauan, Laudion eta Aramaion

Tronkalitatea EZZri buruzko legaren 61. eta 71. artikuluen artean arautzen da, eta senipartearekin azaldu den bezala, tronkalitatearen helburua familia izaerako ondare babestea da, hau da, familiaren ondasunen jabetza familia berean gelditzea. Tronkalitatea Bizkaiko lur lauan (Bizkaia osoan hiribilduetan izan ezik), eta Arabako Laudio eta Aramaio udaletan kokaturiko ondasun tronkaletan, onibarretan hain zuzen ere, aplikatzen da, bertoko auzotasun zibila duen pertsona batek onibarra erosi eta bere ondorengoari eskualdatzen dion unetik. Tronkalitatea alde batetik onibarretan oinarritzen da, baina onibarrak izaera hau eusteko eta tronkalitatearen jarraipena bermatzeko, senide tronkeroak hartu behar dira kontuan, ondorengoak, aurrekoak eta albokoak laugarren graduraino. Tronkalitatearen ondorioz, senide tronkeroa ez den hirugarren bati egingdako *inter vivos* edo *mortis causa* eskualdaketen eragingabetasuna eman daiteke, senide tronkeroek honen kontrako akzioa egikaritzuz.

Jadanik azaldu denez, zuzenbide erkideak senipartearen aldaraztea onartzen du gaitasun mugatua duen ondorengoari begira, eta EZZren kasuan senipartea arautzen da, baina hau ez da zertan ondorengo guztien aldekoa izan behar. GOROSTIZA VICENTEK azaltzen duen moduan, tronkalitate kasuan, hau seniparteari begira gailentzen da, beraz seniparteduna tronkeroa izango balitz, ondasun tronkalak honen senipartera egotziko zitzaizkion, baina seniparteduna ez balitz senide tronkeroa izango (alargunaren kasuan adibidez), honen senipartea ondasun ez tronkalekin ordainduko litzateke ahal izanez gero⁵¹. Tronkalitatearen inguruan, legeak ez du inolako salbuespenik aurreikusten gaitasun mugatua duten subjektuei begira; gaitasun mugatua duen ondorengorik egonez gero, hau

⁵¹ GOROSTIZA VICENTE, J. M. “Sección tercera. De la troncalidad en Bizkaia, Aramaio y Llodio” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M^a. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madrid: Dykinson argitaletxea, 2020. 531-570 or.

senide tronkeroa izango litzateke ondorengo den neurrian. Beraz, EZZk jasotzen duen arauketa kontutan hartuz, guraso edo tutoreek seniparte osoa gaitasun mugatua duen ondorengoaren alde xedatu dezakete, eta gainerako senipartedunak edo senide tronkeroak ez dute aukerarik izango xedapen hori aurkaratzeko, ez senipartearen ez tronkalitatearen ikuspuntutik, kasu orotan ondarea familia berean geldituko litzatekeelako.

2. Oinordetza itunak

Oinordetza itunak EZZri buruzko 5/2015 legearen 100 eta 109. artikuluen artean arautzen dira, eta aurretiaz azaldutako beste erakundeen moduan arauketa eta ulerkerak desberdina du zuzenbide erkidean eta tokiko zuzenbide propioetan. KZk ez ditu oinordetza itunak onartzen inolako salbuespenik gabe, baina EAEn gertatzen den bezala erakunde hau onartzen da, toki bakoitzeko berezitasunekin, beste zuzenbide propioa duten lurraldetan, hala nola, Aragoi, Katalunian, Galizian edo Nafarroan.

Oinordetza itunak kontratu izaerako *mortis causa* negozio juridikoak dira, hau da, kontratu bereziak dira non muina objektua den, etorkizuneko jarauntsia hain zuzen ere; hots hau ez da alde bakarreko xedapenen bidez erregulatu, alde biko kontratu bidez baizik⁵². Beraz, irizpide horri jarraituz, oinordetza itunak testamentua baztertzen du, eta negozio juridikoaren alde bikotasuna kontuan hartuta, hau aldatzeko edota azkentzeko parte hartzaile ororen adostasuna beharko litzateke. Horrez gain, testamentuarekin orokorrean eskatzen den bezala, oinordetza itunak eskritura publikoan jaso behar dira, eta EZZri buruzko legeak jasotako beste erakundeen moduan, oinordetza itunak egiteko aukera euskal auzotasun zibila duen pertsona orori zabaltzen zaio. Oinordetza itunen

⁵² OÑATE CUADROS, F. J. “Capítulo tercero. De los pactos sucesorios” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 783-801 or.

edukiaren aldetik, legeak askatasun zibila gailentzen du, eduki zabala defendatuz eta arautuz, baina legeak hiru suposizio orokor jasotzen ditu⁵³: Ondasunen xedapena *mortis causa* honen titularraren aldetik kasuan kasuko baldintza edo ñabardurekin, oinordetza eskubideen ukapena kausatzailea bizi bitartean (bereziki senipartearen ukapena 48.5.art. jasota), eta hirugarren baten jarauntsiaren gaineko oinordetza eskubideen xedapena hirugarren horren baimena dela medio.

Edu honetan, oinordetza itunak hainbat arazori erantzuna eman ahal dio, hala nola, oinordetzaren aurretiazko plangintza edo familia kideek duten egoera pertsonala eta ekonomikoa behatuz gero honen alde egin nahi diren kontribuzioen erregulazioa. Beraz hainbat autorek erakunde honen erabilgarritasuna nabarmendu dute; ASUA GONZALEZEN arabera, esan daiteke oinordetza itunak familiaren eta gizartearen behar izanak asetzen dituela, bestelako erakundeek duten hutsune edo mugapenak gaindituz, batez ere senideen arteko oinordetza gatazkak ekiditeko, edo gure gairi helduz, baliabideen helarazpena bermatzeko gaitasun mugatua duten ondorengoei⁵⁴. Azken aipamen honen harira, URRUTIA BADIOLA-ren iritziz, oinordetza itunaren erakundeak abantaila batzuk ditu gaitasun mugatua duen ondorengoari begira, bai honekin zuzenean adostutako xedapenen bidez, bai ondorengo honekin harremana duen hirugarren batekin adostutako xedapen eta neurrien bidez, kasuan kasuko aproposenak direnak erabakiz⁵⁵.

⁵³ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 100.2.art.

⁵⁴ ASUA GONZALEZ, C. I.; GALIZIA AIZPURUA, G.; GIL RODRÍGUEZ, J.; HUALDE SÁNCHEZ, J. J.; IMAZ ZUBIAUR, L. *Estudio sobre Derecho sucesorio vasco. Bases para un nuevo régimen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2011. 712-723 or.

⁵⁵ URRUTIA BADIOLA, A. M. "Nota breve sobre capacidad y Derecho Civil Vasco" *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 2016ko urtarrila, 27 zkia., 615-627 or.

Gaia gaitasun mugatua duen ondorengoarekin zuzenean adostutako xedapenetan ardaztuz, honek suposatzen dituen abantailak posible izateko, oinordetza ituna burutzeko alde biek beharrezkoa duten gaitasuna aztertzea beharrezkoa da, EZZri buruzko legean jasotzen diren manuak, KZrekin eta gaitasun mugatua duten pertsonen eskubide zibilak babes-teko lege berriarekin alderatuz. Oinordetza ituna burutzeko, kausatzailea adin nagusikoa izan behar da⁵⁶, testamentua egiteko beharrezkoa ez dena. Honen arrazoia oinordetza itunaren kontratu izaera da, honen aldakuntza edo ezeztapenerako alde bien adostasuna behar baita. Baldintza honetatik abiatuz, kausatzaileak behar duen gaitasuna zehazteko honek burutzen dituen xedapen egintzen izaera aztertu behar da: Alde batetik, oinordetza itunak, kausatzailea bizirik dirauen bitartean burututako eskualdatzeak jasotzen baditu, kausatzaileak *inter vivos* dohaineko eskualdatzeak burutzeko gaitasuna beharko du, hau da kontratazio eta xedapen ahalmena, KZean arautzen dena⁵⁷. Kontrara, oinordetza itunaren eragingarritasuna *post mortem* izango balitz, kausatzaileak behar duen gaitasuna ez dago argi, berez hau ez delako testamentu bat, eta ezin delako zuzenbide erkidea zuzenbide ordeztaile moduan hartu honek ez baitu jasotzen oinordetza ituna. Beraz, OÑATE CUADROS-en arabera, izaera honetako xedapenen kasuan, kasu bakoitza behatu beharko litzateke; baina New Yorkeko konbentzioaren oinarrituz (eta honek suposatutako araudi eratorrian), ulertu daiteke gaitasun mugatua duen pertsonaren autonomiaren sustapena, oinordetza itunak burutzeraz neurri baten hedatu daitekeela⁵⁸.

⁵⁶ 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa. 100.3.art.

⁵⁷ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia. 624.art.

⁵⁸ OÑATE CUADROS. F. J. “Capítulo tercero. De los pactos sucesorios” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 783-801 or.

Izendatuari dagokionez, kausatzaileak duen adin nagusitasunaren baldintza bera du, baina aurrekoarekin alderatuz, CELAYA IBARRAK defendatzen du baldintza hori ituna burutzen duenari soilik aplikatu ahal zaiola, eta ez harreman juridiko horren titularrari⁵⁹. Are gehiago, ulertu daiteke adingabeei, eta gaitasun mugatua duten pertsoneri oinordetza ituna ukatzea, hauen gaitasun juridikoaren bekaizkeria justifika ezina dela; baina azken hauen kasuan onarpenari buruzko ñabardura batzuk aipatu behar dira. Zuzenbide erkidean gaitasunari buruzko jasotako manuen arabera, tutoretza edo bestelako babes erakunde baten menpe dauden pertsonen kasuan, tutoreak epailearen baimena behar du jarauntsiak onartzeko inbentario onurarik gabe⁶⁰; hala ere hainbat usteren arabera hau ez litzateke EZZren esparruan aplikatu beharko, 5/2015 legearen 21.2.artikuluaren arabera jaraunsleek erantzukizuna dutelako kausatzailearen betebeharren gain, jarauntsi bidez eskuratutako ondasunen balioaren neurrian.

Beraz, jarauntsiaren manu hori oinordetza itunera hedatuz, ez litzateke aplikatu beharko zuzenbide erkidea, eta gaitasun mugatua duen izendatuak jarauntsia onartzeko baldintza orokorrak bete beharko lituzke; gaitasunari buruzko arauketa orokorra aplikatzen da, hots KZ hartzen da kontuan zuzenbide ordeztaille legez. Adierazi den moduan, KZren arabera gaitasun mugatua duen pertsona batek jarauntsia onartu dezake, kuradorearen laguntzarekin betiere epai irmoak hau ahalbidetzen badu; baina jadanik azaldutako 8/2021 lege berriarekin, jarauntsiaren onartzea orokorrean gaitasun mugatua duen pertsonaren eskutan geratuko da, salbu eta honek dituen babes neurriek beste eraren bat izango balute.

⁵⁹ CELAYA IBARRA, A. *Ley sobre Derecho Civil Foral del País Vasco*. Madrid: EDERSA argitaletxea, 1997. 301-314 or.

⁶⁰ Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1889ko uztailearen 27koa, 206 zkia. 271.4.art.

III. FORU ZUZENBIDE DESBERDINETAKO OINORDETZA ERAKUNDE BEREZIEN ALDERAKETA

Aurreko puntuan azaldu eta aztertu diren oinordetza erakunde berezietatik abiatuz, interesgarria izango litzateke erakunde nabarmen horiek beste foru zuzenbide batzuetan arautzen direnekin alderatzea; hau da EZZk arautzen dituen erakundeek duten eragin bera izan ahal duten erakundeen azterketa, Espainiako estatuaren zuzenbide aniztasuna dela eta. Helburu honetarako lau lurralderen zuzenbide zibil propioa hartuko dira kontuan, Aragoi, Galizia, Katalunia eta Nafarroa; oinordetza erakundeetan ardaztuz. Gaitasunaren arauketari dagokionez, zuzenbide zibil berezi batzuk gaia arautzen dute (orokorrean KZren manuak jarraituz), baina 8/2021 legearen eragina dela eta, ez da gai hori aztertuko etorkizun hurbilean xedapen horiek aldatuko baitira.

Aragoiko zuzenbide zibilarekin hasiz, gai hau Aragoiko Zuzenbide Foralaren Kodean⁶¹ (aurrerantzean AZFK) jasotzen da, non oinordetza-ri buruzko hainbat manu jasotzen diren. Aragoiko zuzenbide bereziak hainbat oinordetza erakunde arautzen ditu, hala nola testamentu arrunta, testamentu mankomunatua edo oinordetza itunak. Orokorrean honen arauketa EZZren antzekoa da, batez ere erakunde bakoitzaren muina edo arima berdina delako, alde bikotasuna oinordetza itunetan, edo kausatzaile ugariren borondatearen lotura tresna beraren bidez testamentu mankomunatuaren kasuan. Hala ere, desberdintasun batzuk adierazi behar dira, batez ere lanean zehar jorratu den gaiari begira; oinordetza itunen kasuan Aragoiko legeak aldean adin nagusitasuna eskatzen du, eta beren-beregi jasotzen du negozioren izaera pertsonala, hots EZZrekin alderatuz, ez litzateke onartuko alderen baten ordezkari

⁶¹ 1/2011 Legegintza Dekretua, martxoaren 22koa, Aragoiko Zuzenbide Foralaren Kodea onartzen duena. AAO 67 zkia. 2011eko martxoaren 29koa.

ritza⁶², aspektu nabarmena alderen bat gaitasun mugatua izanez gero. Azken berezitasun moduan, Aragoiko legearen oinarrien joera zentralista dela eta, foru zuzenbide honek KZrentzat jotzen du, ez baitu komisario bidezko testamentua onartzen bere arauketa berezian

Galiziako zuzenbide zibil propioarekin jarraituz, hau lege berezian jasotzen da⁶³, eta bertan aurreko kasuetan moduan oinordetzari buruzko manuak arautzen dira. Galiziako zuzenbideak EZZk arautzen dituen erakunde berezi bardinak arautzen ditu, testamentu mankomunatua, komisario bidezko testamentua eta oinordetza itunak hain zuzen ere, baina berezitasun batzuekin. Lehenengoa oinordetza itunetan behatzen da, non alde batetik itunen izaera jarauntsiaren hobekuntzara edo baztertzer mugatzen diren, eta bestetik aldean adin nagusitasuna eta jarduteko gaitasuna eskatzen den, Aragoiko zuzenbidean azaldu den bezala. Testamentu mankomunatua ez da antzematen ezaugarri desberdinik, baina komisario bidezko testamentuak ere muga batzuk ditu EZZean arautuarekin alderatuz; Galizian burututako testamentu mota honetan komisarioaren izendapena ezkontideen artean izan behar da, hirugarrenak baztertuz. Erakunde hau, Bizkaian arautzen zen *alkarpoderosoaren* antzerakoa da, eta eragin positiboa izan arren, gaitasun mugatua duen ondorengoari begira honek desabantaila batzuk izan ahal ditu, batez ere aurreko atalean azaldutako etorkizun ikuspuntu horri dagokionez.

Kataluniarekin jarraituz, honen zuzenbide zibila beste era batera antolatzen da, Kataluniako Kode Zibilean (aurrerantzean KKZ) hain zuzen ere. KKZ hainbat liburutan banatzen da liburu bakoitza lege bat izanik,

⁶² BELLOD FERNÁNDEZ DE PALENCIA, E. “Título II. De las sucesiones paccionadas” Ondoko lanean: DELGADO ECHEVERRÍA, J. (koord.) *Código del Derecho Foral de Aragón. Concordancias, doctrina y jurisprudencia*. Zaragoza: Aragoiko Gobernua, 2013. 567-577 or.

⁶³ 2/2006 legea, ekainaren 14koa, Galiziako Zuzenbide Zibilari buruzkoa. GAO 124 zkia. 2006eko ekainaren 29koa.

eta oinordetzari buruzko manuak laugarren liburuan⁶⁴ arautzen dira. Kataluniak, Euskadiren moduan, nortasun kultural eta juridiko sendoa izan arren, ez du erakunde ugari arautzen oinordetzaren arloan, are gehiago, Espainiako KZk jasotzen dituen manu batzuetan zentratzen da, bestelako foru zuzenbideetatik aldentuz. Honen adibide argia izango litzateke KKZk arautzen dituen ordezen desberdinak edota fideikomisozko oinordetzaren erregulazioa besteak beste. Erakunde bereziei erreparatuz, Kataluniako zuzenbideak oinordetza itunak soilik arautzen ditu, orokorrean EZZk jasotzen dituen berezitasunekin, baina aurreko zuzenbide propioekin alderatuz, Kataluniako kasuan ere aldean jarduteko gaitasuna eskatzen da, salbu eta aldeetako batek (jaraunslea nagusiki) onurak soilik jasotzen baditu itunetik. Hau da, ituna burutzean gaitasun mugatua duen jaraunsleak ez badu inolako kargarik jasotzen, honen ordezkariak ituna onartu ahalko du bere izenean, ez dagoelako gaitasun mugatua duen pertsona kaltetzeko aukerarik.

Azkenik, Nafarroako zuzenbide zibil propioari dagokionez, gai hau Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioan⁶⁵ arautzen da. Arrazoi historikoak direla eta, Nafarroako zuzenbide zibil propioa EZZ baino garatuagoa da (nahiz eta aspektu batzuetan KZren kontzeptuak errepikatu edo jarraitu), baina oinordetzari dagokionez, Nafarroan oinordetza itunak eta ermandadeko testamentua bakarrik arautzen dira erakunde berezi legez (ordezpenak eta fideikomisoa alde batera utziz). Oinordetza ituna EZZean arautzen den era berean jasotzen da, ideia orokorrak mantenduz, aldean gaitasuna barne. Ermandadeko testamentua izen hau izan arren, kontzeptua testamentu mankomunatua da, aurretiaz azaldutako erregulazio antzekoarekin. Hortaz Nafarroan onartzen

⁶⁴ 10/2008 legea, uztailaren 10ekoa, Kode Zibilaren laugarren liburukoa, oinordetzei buruzkoa. KAO 5175 zkia. 2008ko uztailaren 17koa.

⁶⁵ 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria onartzen duena. EAO 57 zkia. 1973ko martxoaren 7koa.

diren erakunde berezi hauetan EZZren antzeko erregulazioa jarraitzen da, baina KZk ezartzen duen moduan, konpilazioak ez du komisario bidezko testamentua arautzen.

Alderaketa honekin behatu daiteke hainbat berezitasun daudela foruetan oinarritutako zuzenbide zibil propioetan, foru horiek suposatzen duten praktika, ohitura eta usadioak direla eta; baina arrazoi bardinagatik argi gelditu da ordenamenduen artean dauden desberdintasunak, bai lurraldearen berezitasunagatik bai foru lurralde desberdinek ordenamendu erkidera duten joeragatik. Dena dela, proiektu osoan zehar azaldu den bezala, ordenamendu bakoitzak bere berezitasunekin, hainbat abantaila izan ahal ditu kasuan kasuko oinordetzari begira, EZZk arautzen dituen oinordetza erakunde bereziekin gertatzen den bezala, batez ere oinordetzan parte hartzen duen aldeetako batek gaitasun mugatua izango balu.

IV. OINORDETZA ERAKUNDEEN ETA GAITASUN MUGATUA DUTEN PERTSONEN IKUSPUNTU FISKALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

Fiskalitatea lurralde baten ogasun publikoaren funtzionamendua eta jarduera ezartzen duen arau eta prozedura multzoa da, ogasuna eta bestelako partaide ekonomikoak erlazionatzen dituenak. Ezaguna denez, Espainiako ordenamendu juridikoa anitza da, non lurraldearen arabera legeak desberdinak diren, usadio eta ohituretan oinarrituta, Euskadin gertatzen den bezala. Zuzenbide zibilarekin batera, fiskalitatea EAEko zuzenbide propioaren adar nabarmena da, sarreran aipatu den foruen ezabatzearen ondoren eutsitako eskubide historikoa hain zuzen ere. Are gehiago, EAEko fiskalitatearen berezitasuna bikoitza da; alde batetik zuzenbide erkidearekiko eta estatuko ogasun publikoarekiko desberdina da, baina bestetik barne araudia ere desberdina da, fiskalitatea foru ogasunetan oinarritzen baita, hau da, Lurralde Historiko bakoitzak fis-

kalitateari buruzko legeria onartzeko eta honek arautzen dituen zergak biltzeko eskumena du. Foru ogasunak hainbat partaide ekonomikorekin ditu harremanak, eta zerga ugari arautzen ditu, zuzenak nagusiki, baina ikerketaren bidea jarraituz, Oinordetza eta Dohaintzen Zerga (aurrerantzean ODZ) aztertuko da, gaitasun mugatua duten pertsonen berezitasunak jasoz eta Bizkaiko ogasunaren araudia kontuan hartuz.

ODZ hainbat arauen bidez erregulatu izan da, baina gaur egun indarrean dagoen arau nagusia Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 foru araua da⁶⁶, beste bi arauen bidez osatzen dena: 10/2013 foru araua⁶⁷ eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2015 foru dekretua⁶⁸. Arau hauek erregulatzen duten zerga egitatea oinordetzan edo dohaintzan kosturik gabe lortutako ondare gehikuntzak dira. Jarraian azalduko da alde batetik ODZren arauketa orokorra, oinordetza erakunde desberdinen berezitasunen aipamenarekin, eta bestetik Bizkaiko fiskalitateak oinordetzen arloan gaitasun mugatua duen pertsonaren aldeko onurak edo berezitasunak.

Zerga honen aplikazio esparrura biltzen dira, ohiko bizilekua EAEn duen kausatzailearen *mortis causa* izaerako negozio juridikoen eskualdaketak, EAEn dauden ondasunen eta honen gaineko eskubideen dohaintzak, eta ohiko bizilekua EAEn duen dohaintza emaileak buruturiko dohaintzak. *Mortis causa* izaerako negozio juridikoetan zentratuz, arauak

⁶⁶ Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 foru araua. BAO apirilak 1ekoa.

⁶⁷ 10/2013 foru araua, abenduaren 5ekoa. Honen bidez, aldatu egiten dira oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko 1989ko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauko Testu Bategina eta ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Araua. BAO Abenduaren 13koa.

⁶⁸ Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2015 foru dekretua, apirilaren 21ekoa. Honen bidez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten da. BAO Apirilaren 27koa.

kontuan hartzen ditu jarauntsiak, legatuak, *mortis causa* dohaintzak, oinordetza itunak eta egintza analogoak.

Aurretiaz aztertutako erakundeetan sakonduz, fiskalitate berezitasunak dituzten hiru oinordetza mota aztertuko dira, OCINA AGIRREK defendatutako interpretazioa jarraituz⁶⁹: ordezpenak, komisario bidezko testamentua eta oinordetza itunak. Ordezpenekin hasiz, onbidezko ordezpenean ulertuko litzateke zergaduna ordeztuaren oinordea dela, beraz zergaren zenbatekoa kalkulatzeko senidetasun aplikagarria ordeztuaren eta honen oinordearena izango litzateke, testamentugilea ordeztuaren aurrekoa izan arren. Aldiz, fideikomiso bidezko ordezpenean zergaren kalkulari begira aplikatu beharreko senidetasuna kausatzailearena eta fideikomisodunarena izango litzateke, fiduziariora gozamen-dun hutsa dela ulertuz; baina irizpide hau aldatuko litzateke gaitasun mugatua duten fiduziarioen kasuan, azaldu den bezala hauek ondarearen gaineko xedapen eskubidea dutelako onartu den 8/2021 legearen arabera. Beraz, ordezpen mota honetan gaitasun mugatua duen pertsonak izango zuen karga fiskala.

Komisario bidezko testamentuarekin jarraituz, oinordetza mota honetan honako likidazio hauek egin beharko dira, bat kausatzailea hil eta berehala, komisarioak ez ukituriko jarauntsiaren zenbatekoaz, eta bestea ahalordearen oinordetza-jardun ezeztazineki edo beste edozein arrazoia dela bide ahalorde hori azkentzearen ondorioz eratorritako eskuratzeei dagozkienak. Honi begira, zerga likidatzeko eta zerga-oinarrirako aurreikusten diren murrizketak aplikatzeko pilatu egingo dira ondorengo bati dagozkion eskuraketa guztiak. Horrela, testamentu-ahalordea guztiz edo partez erabiltzearen edo hura iraungitzeko gainerako arrazoien ondorioz ondorengo bati kausatzaile berarengandik datozkion jarauntsiko eskuraketa guztiak eskuraketa bakartzat joko dira zerga likidatzeko; hori dela

⁶⁹ OCINA AGIRRE, R. *Curso impuesto sobre sucesiones y donaciones* Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 2020.

eta, zerga-kuota kalkulatzeko, zerga-oinarri guztiak batuko dira, eta araututako zerga-oinarriaren murrizketen artetik aplikatu beharrekoak behin bakarrik aplikatuko dira. Beraz gaitasun mugatua duen oinordeari begira honen alde burututako eskualdatze guztiak metatuko lirateke, likidazio bakarra eginez, eta aurrerako azaltzen den onura aplikatuz.

Azkenik oinordetza itunei dagokionez, foru arau honen ekarpen nabarmenetako bat administrazioaren jardunean erabat errotuta dauden irizpide batzuk biltzea izan da, batez ere, EZZk berezko duen oinordetza itunaren erakundeari buruzkoak. Arauaren arabera, oinordetza itunak ikuspuntu fiskaletik oinordetza erakunde legez kontuan hartzeko, ondasun berezi baten titulartasuna esleitzea suposatuta behar du, esleipen hori ondasun xedapen zabalago baten parte bada, non gutxienez beste elementu bat egon behar den oinordeko izendapenari lotuta tresna itundu batean. Baldintza hau bete ezean, dohaineko eta *inter vivos* oinordetza ituna negozio juridikotzat hartuko da, salbu eta titulartasuna esleitzen deneko ondasun berezia izendatzailearen ondareko elementu bakarra bada. Oinordetza itun izaera izanez gero, honi oinordetza arruntaren sortzapen eta likidazio arauak aplikatu zaizkio.

Gaitasun mugatua duen oinordea zergaduna denean, araudi fiskalak honen aldeko manu zehatza jasotzen du⁷⁰, senidetasun harremanak suposatzen duen murrizketekin batera hurrengo arautuz; eskuratzailiek gaitasun mugatua badute edo mendekotasun egoeran badaude, ehun mila euroko murrizketa aplikatuko litzateke, kontuan hartu gabe zer murrizketa duten kausatzailearekiko senidetasunaren arabera. Hortaz, esan daiteke oinordetzari begira, arauketa fiskalak ez duela prozedura berezik aurreikusten gaitasun mugatua duten pertsonari begira, gaur egungo legeriaren eraginez; hau da, zuzenbide erkidearen arabera gaitasun mugatua

⁷⁰ Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 foru araua. BAO apirilak 1. 43.1 art.

duen pertsonak ezin badu kasu askotan bere kabuz testamentua egiletsi edo jarauntsia onartu, araudi fiskalak ez du kontuan hartzen gizatalde hau oinordetzari buruzko ondore fiskalei begira. Momentuz subjektu honekiko babes fiskala bestelako esparruetan nabarmentzen da, hala nola, Pertsonen Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, bai gaitasun mugatuei duten pertsoneri bai honen babes erakundearen diren arduradunei begira. Dena dela, ikerketan zehar aztertu den bilakaera aurrerakoia eta onartu berria izan den legea kontuan hartuta, honen eragina esparru fiskalera heltzea espero da.

V. ONDORIOAK

Sarreran aurkeztu den bezala, ikerketa honen helburua EZZean arautzen diren oinordetza erakundeak aztertzea izan da, gaitasun mugatua duen pertsonaren oinordetza eskubideen babesaren ikuspuntutik. Edu honetan bi gaiak uztartu nahi izan dira, gaitasun mugatua duen pertsonen eskubideen bermea eta honen guraso edo tutoreek hauen ondare babesari begira burutu ahal dituzten oinordetza xedapenak azaleratzeko, hain zuzen ere. EZZ eta zuzenbide erkidea kontuan hartuta, eta jadanik azaldutako ikuspuntuetan oinarrituz, ikerketa honek hurrengo ideiak ondorioztatzen ditu:

LEHENA.- Oinordetza erakunde orotan aipatu den moduan, EZZri buruzko lege barriak onura handia suposatu izan du oinordetzaren esparruan, honen aplikazioa EAE osora hedatu delako, beraz Euskadiko zuzenbide propioak eskaintzen dituen oinordetza aukerak euskal auzotasuna duen pertsona orori zabaltzen zaizkio; betiere kontuan hartuz tokian tokiko berezitasunak hala nola tronkalitatea Bizkaiko lur lauan, Laudion eta Aramaion. Zabaltze honek lurralde historikoen arteko desberdintasunak leuntzen ditu, euskaldun oro ahalbidetuz euskal lurralde zehatze-

tan ohikoak diren egintzak burutzeraz, hala nola, komisario bidezko testamentua, honek suposatzen dituen abantaila eta aukera guztiekin.

BIGARRENA.– Gaitasun mugatua duten pertsonen eskubideen defentsaren bilakaera nabarmena izan da azken hamarkadetan, subjektu honen gizarteratzea onartu duena hainbat esparrutan, lan arloan batez ere. Era berean, hauen eskubide zibilen arloan korrante aurrerakoia gailentzen ari da, hauen babes eta aldarrikapena sustatzen baita gero eta gehiago. Babes eta aldarrikapen honen oinarria gaitasun mugatua duen pertsonak bere gaitasun juridikoa egikaritzeko autonomiaren ekimena da, pertsonak diren heinean haien eskubideen egikaritzea askea defendatzen baita. Autonomia honen defentsa Nazio Batuen Erakundearen ekimenak eratorritako lege ekimenen bidez bermatzen da, Espainiako Estatuan gertatu den bezala, non pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntzeko legea onartu den. Legegilearen ekimen honek gizatalde honen aldeko oreka ekarriko du, alde batetik horien autonomia juridikoa sustatuz eta bestetik babes erakundearen eragingarritasuna bermatuz. Dena dela, gaitasun mugatua duten pertsonen aldeko bidea ez da hemen amaitu behar, haien alde egin behar da esparru guztietan, babesarekin batera haien pertsona duintasuna lortzeko. Pertsona hauek gizarteko partaideak dira eta ezin dira alde batera utzi.

HIRUGARRENA.– Euskadik historikoki izan dituen eskubideak oinarritzen duten zuzenbide propioak hainbat berezitasun eta aukera eskaintzen dizkio euskal auzotasun zibila duten pertsona guztiei, beraz kausatzaileek zuzenbide erkidean jasotako ez gain beste oinordetza modu batzuk hautatu eta burutu ahal ditu. Hala ere, berezitasun hauek arazo batzuk suposatu dezakete, EZZk ez baitu zuzenbide erkideak arautzen dituen gai guztiak jasotzen. Ikerketan zehar agerian geratu den bezala, EZZk ez ditu gaitasunari buruzko manu berezirik jasotzen, hots zuzenbide ordeztaila aplikatuz, gaitasunari buruzko erregulazioa Espainiako KZean jasotzen

da. Zuzenbide bien arteko beharrezko harreman horrek kasuan kasu arazoak sortu ahal ditu, EZZri buruzko legearen edota aurretiaz aztertutako bestelako foru zuzenbideen legeen eta KZren helburuak desberdinak direlako. Ondorioz, etorkizunera begira aberasgarria izango litzateke ordenamendu juridikoen aniztasuna mantentzea, baina interpretazio irizpide argiak aplikatuz, batez ere gizarteko partaide zaurgarriei begira, gaitasun mugatua duten pertsonak besteak beste.

LAUGARRENA.- EZZean jasotako oinordetza erakundeen aniztasunak onura ugari planteatzen ditu gaitasun mugatua duten pertsonen begira, batez ere gizatalde honetako partaideak ondorengo edo oinorde izaera dutenean. Kasu askotan gertatzen den bezala, gaitasun mugatua duen seme-alabaren bat duten gurasoen ardura nagusia, hauek hiltzean ondorengo horrek behar duen babes pertsonala eta ondare babesba da. Babes pertsonala zuzenbide erkideak arautzen dituen babes erakunde desberdinen esku utziz, ondare babesba bermatzeko oinordetza erakunde berezi hauek oinarritzko eginkizuna dute, batez ere aurreko atalean zerrendatutako erakundeen bidez; testamentu mankomunatua, komisario bidezko testamentua, eta oinordetza itunenak, bakoitza bere berezitasun eta ez-augarriekin. Jadanik azaldu den bezala, oinordetza bide hauetan gurasoek ondorengo horren ondare babesba berma dezakete, erakunde horien bidez adostutako xedapenak aldatzea oinordetza arruntean baino konplexuagoa baita, honek babesaren helburua ahalbidetzen du nahiz eta kausatzaileak etorkizunean berriz ezkondu edota seme-alaba gehiago izan. Gainera erakunde hauek suposatzen duten abantaila ugari horien eragingarritasuna indartzeko, gaitasun mugatuaren alde dagoen autonomia korrontea funtsezkoa da, ikerketaren oinarrietako bat izan den pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntzeko 8/2021 legea kontuan hartuz. Aipamen berezi legez, eta komisario bidezko testamentuan ardaztuz, erakunde hau bereziki interesgarria izango litzateke, batez ere gaitasun

mugatua duten pertsonen jarduteko autonomiaren bilakaera kontuan hartuta. Eskubideen egikaritza autonomoaren testuinguru honetan, gaitasun mugatuaren maila kasuan kasu kontuan izanik, komisarioak “parakuradoretza” izaera izan dezake, ondorioz bere zeregina gaitasun mugatua duen oinordeko horrek beharrezkoa duen laguntzara mugatuz.

BOSGARRENA.– Amaitzeko, ikerketa guztian zehar begi-bistan utzi dira EZZk gaitasun mugatua duten pertsonen oinordetza eskubideetan suposatzen dituen onura eta abantailak, baita ere gizatalde honetako partaideen beharrezko autonomia eta eskubideen errespetatze arloan. Baina, harreman honen eragingarritasunaren gakoa aukera hauen zabalkundea da, alde batetik euskal auzotasun zibila duten pertsonen haien eskubide eta aukerez jakitun izateko, eta bestetik gaitasun mugatua duten pertsonen eskubideen babesa zabaltzeko. Ondorioz, zuzenbide propioaren errotzea eta gaitasun mugatua duen pertsonaren gizarteratzea lortuko litzateke, honek suposatzen dituen gizarte bilakaera onuragarriarekin.

Laburbilduz, EZZk arautzen dituen erakundearen erabilera sustatu behar da, hauek gure gizartean behar izanean dauden esparruen ongizatea ahalbideatzeko, hala nola gaitasun mugatua duten pertsonen ondare babesa oinordetza erakunde propioetaz baliatuz; begi-bistan izanik momentu orotan gizatalde honen kideek duten autonomia beraien eskubideak egikaritzeko. Beraz, ikerketa honek berriz frogatu du zuzenbidearen garapena gizartearen bilakaera aurrera eramateko tresna edo biderik egokienetarikoa dela.

VI. BIBLIOGRAFIA

1. Bibliografia

Liburuak

ASÚA GONZÁLEZ, C. I.; GALIZIA AIZPURUA, G.; GIL RODRÍGUEZ, J.; HUALDE SÁNCHEZ, J. J. eta IMAZ ZUBIAUR, L. *Estudio sobre Derecho sucesorio vasco. Bases para un nuevo régimen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2011.

CELAYA IBARRA, A. *Ley sobre Derecho Civil Foral del País Vasco*. Madril: Edersa argitaletxea, 1997.

FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, J. J. *Manual práctico de Derecho Civil Vasco*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2014.

GIL RODRÍGUEZ, J. eta GALICIA AIZPURUA, G. *Manual de Derecho Civil Vasco*. Bar-tzelona: Atelier argitaletxea, 2016.

LEÑA FERNÁNDEZ, R. *Discapitados y testamento*. Madril: La Llave argitaletxea, 2004.

OCINA AGIRRE, R. *Curso impuesto sobre sucesiones y donaciones*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2020.

URRUTIA BADIOLA, A. M. *Familia eta oinordetza zuzenbidea*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2019.

Liburuen atalak

BELLOD FERNÁNDEZ DE PALENCIA, E. “Título II. De las sucesiones paccionadas” Ondoko lanean: DELGADO ECHEVERRIA J. (koord.) *Código del Derecho Foral de Aragón. Concordancias, doctrina y jurisprudencia*. Zaragoza: Aragoiko Gobernu, 2013. 567-577 or.

GIL RODRÍGUEZ, J. “El Testamento Mancomunado Vasco, en perspectiva de unificación” Ondoko lanean: BLASCO GASCÓ, F. (koord.) *Estudios jurídicos en homenaje a Vicente L. Montés Penadés*. Balentzia: Tirant lo Blanch argitaletxea, 2011. 1209-1237 or.

GOROSTIZA VICENTE, J. M. “Sección tercera. De la troncalidad en Bizkaia, Aramaio y Llodio” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 531-570 or.

LLEDÓ YAGÜE, F. “Capítulo segundo. De las limitaciones a la libertad de testar”. Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 457-474 or.

OÑATE CUADROS, F.J. “Capítulo tercero. De los pactos sucesorios” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 783-801 or.

TENA PIAZUELO, I. “Sección tercera. De la sucesión por testamento mancomunado o de hermandad” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 333-349 or.

URRUTIA BADIOLA, A. M.^a. “Sección cuarta. De la sucesión por comisario” Ondoko lanean: URRUTIA BADIOLA, A. M.^a. (koord.) *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, del 25 de junio, de Derecho Civil Vasco*. Madril: Dykinson argitaletxea, 2020. 333-349 or.

Artikuluak

BARRANCO, C., CUENCA, P., eta RAMIRO, M. A. “Capacidad jurídica y discapacidad: el artículo 12 de la convención de derechos de las personas con discapacidad” *Anuario Facultad de Derecho – Universidad de Alcalá V*, 2012ko ekaina 53-80 or.

BLÁZQUEZ MARTÍN, R. “El tratamiento de la discapacidad en la jurisprudencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo” *Revista La Ley*, 2018ko urria, 15141/2018 zkia.

BOSCH CAPDEVILLA, E. “La compilación del derecho civil especial de Cataluña: Génesis, significado y ¿defunción?” *Revista Ius Fugit*, 2010, 181-198 or.

CELAYA IBARRA, A. “El testamento por comisario” *Anuario de Derecho Civil*, 1972ko martxoa, 25.liburukia, 3 zkia., 736 or.

GARCÍA RUBIO, M. P. “Algunas propuestas de reforma del código civil como consecuencia del nuevo modelo de discapacidad. En especial en materia de sucesiones, contratos y responsabilidad civil” *Revista de Derecho Civil*, 2018ko iraila, V.liburua, 3.zkia. 173-197. or.

LLEDÓ YAGÜE, F. “La convención de Nueva York y la necesaria reformulación de la discapacidad”. *R.E.D.S.*, 2019ko urtarrila, 14 zkia. 140-147 or.

MONREAL ZIA, G. “Foruak ezeztatzeko 1876ko uztailaren 21eko Legea (aurrekariak eta Kongresuan izaniko izapidetzea)”. *Revista Iura Vasconiae*, 2013ko abendua, 10/2013 zkia., 39-192 or.

PEREÑA VICENTE, M. “El Derecho sucesorio como instrumento de protección del discapacitado” *Revista La Ley*, 2004ko otsaila, 228/2004 zkia.

TENA PIAZUELO, I. “La sucesión por testamento mancomunado o de hermandad en el nuevo Derecho Civil Vasco”. *Revista de Derecho Civil*, 2019ko iraila, VI liburua, 4 zkia., 45-88 or.

URRUTIA BADIOLA, A. M^a. “Nota breve sobre capacidad y Derecho Civil Vasco” *JADO. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 2016ko urtarrila, 27 zkia., 615-627 or.

Erakunde txostenak

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU OROKORRA. *Código de la discapacidad*. Madril: EAOeko Estatu Agentzia, 2021.

GORABIDE: Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko elkarte bizkaitarra. *Adimen desgaitasuna zifretan*. Bilbo: 2019.

2. Legeria

Estatu mailako legeria

- Espainiako Konstituzioa. EAO, 1978ko abenduaren 29koa, 311 zkia.
- 2006ko abenduaren 13an New Yorken ospatutako konbentzioaren berrespena, non pertsona ezgaituen eskubideak hitzartzen diren. EAO, 2008ko apirilaren 21ekoa, 96 zkia.
- 3/1979 Lege Organikoa abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia estatutuari buruzkoa. EAO, 1979ko abenduaren 22koa, 306 zkia
- 8/2021 Legea, 2021eko ekainaren 2koa, legedi zibila eta prozesala aldatzen duena pertsona ezgaituek haien gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko. EAO, 2021eko ekainaren 3koa, 132 zkia.
- 20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa Erregistro Zibilari buruzkoa. EAO, 2011ko uztailaren 22koa, 175 zkia.
- 41/2003 Legea, azaroaren 18koa, desgaitasuna duten pertsonen ondare babesari buruzkoa. EAO, 2003ko azaroaren 19koa, 277 zkia.
- 13/1983 Legea, urriaren 24koa, Kode Zibilaren erreformari buruzkoa tutoretza arloan. EAO, 1983ko urriaren 26koa, 256 zkia
- Notariotza Legea. Gaceta de Madrid, 1862ko maiatzaren 29koa, 149 zkia.
- Kode Zibila argitaratzeko Errege Dekretua. Gaceta de Madrid, 1889ko uztailaren 27koa, 206 zkia.
- 1946ko otsailaren 8ko Dekretua , Hipoteka Legearen idazkera ofizial barria onartzen duena. EAO 1946ko otsailaren 27koa, 58 zkia.
- 2003ko otsailaren 18ko Erregistroaren eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena. EAO, 2003ko martxoaren 12koa, 61 zkia.

Legeri autonomikoa

- 5/2015 legea, ekainaren 25ekoa. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. EHAA 124 zk. 2015eko uztailaren 3koa.
- 1/2011 Legegintza Dekretua, martxoaren 22koa, Aragoiko Zuzenbide Foralaren Kodea onartzen duena. AAO 67 zk. 2011eko martxoaren 29koa.
- 10/2008 legea, uztailaren 10ekoa, Kode Zibilaren laugarren liburukoa, oinordetzei buruzkoa. KAO 5175 zkia. 2008ko uztailaren 17koa
- 2/2006 legea, ekainaren 14koa, Galiziako Zuzenbide Zibilari buruzkoa. GAO 124 zkia. 2006eko ekainaren 29koa.
- 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria onartzen duena. EAO 57 zkia. 1973ko martxoaren 7koa

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Arauak

- Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 foru araua. BAO apirilak 1
- 10/2013 foru araua, abenduaren 5ekoa. Honen bidez, aldatu egiten dira oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko 1989ko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauko Testu Bategina eta ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Araua. BAO Abenduaren 13koa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2015 foru dekretua, apirilaren 21ekoa. Honen bidez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten da. BAO Apirilaren 27koa.